

2001-10-28
kioskoa**Agurtzane Ormaetxea****Beste 'sorginen ehiza'**

Irailaren 11n New Yorki eta Washingtoni egindako erasoen ondorengo oihartzunak ez du etenik gure inguruetako egunkarien editorialetan; berri iturri etengabeak dira EEBBetan gertatzen den oro eta Afganistan. Atzo leku berezia izan zuen Washingongo gobernuak herenegun indarrean jarritako Patriot Lege «antiterroristak». Zuhur azaldu zen **El Pais**, esanez «legearen edukia kontu handiz erabili beharko dela Zuzenbide Estatuaren oinarriak ez urratzeko». Ez da gutxiagorako, kontuan izanda banakako eskubideak, batik bat etorkinenak, izugarri murrizten dituela legeak. Horregatik, **Gararen** arabera, *sorginen ehiza* eta *arrainari ura kentzea* kontzeptuak «indarrez itzuli dira milurtekoaren hasieran EEBBetara». Izan ere, «Estatu polizia-lerako bidean aurrerapauso nabarmena da» legea; «susmagarri atxilotuak errudun izango dira kontrakoa erakusten ez duten bitartean».

Bestalde, «prentsarako epaitegi bat» eskatuz Xabier Arzalluzek esandakoak ekarri zituen gogora Isabel San Sebastianek **El Mundo**. Arzalluzek «adierazpen askatasuna» ezabatu nahi duela zehaztu zuen San Sebastianek, eta hitz horiek Inkisizioa eta Frankismoko Ordena Publikorako Tribunalak gogora ekartzen zizkiola gaineratu zuen.

Diario de Noticiasek, berriz, UPNko bozeramaile Alberto Catalanek euskararen kontra erakutsitako «harropuzkeria eta errespetu falta» salatu zuen editorialean. Eta **Deiak** barne-orrietan nabarmendu zuen **Deia-Diario de Gipuzkoa** «proiektuaren» sorrera.

Egunkaria 3.384. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Inaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**IKUSKATURIKO HEDAPENA**
Batzorde Parekidea: 7264 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**balkoia****Martxelo Otamendi****Rotaflexa uniformearekin**

Rotaflexa, politika jorratzen den orrietara jauzi egin zuenetik, sinbolo-tresna bihurtu da gure herrian. Itoizko urtegiaren aurka *solidarioek* egindako ekintza hark eman zion lanabes horri *tresna politiko* izateko eskubidea, eta harrezkero euskal politikaren entziklopedian orri propioa hartu du.

Egunotan Ipar Irlandatik iritsitako irudietan ikusi dugu berriro rotaflexa, ez ordea betiko *erreboltarien* esku, bai zik eta Erresuma Batuko Armadako ki-deenean, zertan eta haien zaintze doreak eta egoitzak desegiten. Presentzia militarra gutxitzea erabaki du Londresek, aurreko batean egin zuen bide beretik: armadako egoitzak hustu eta desegin. Kameran aurrean egin dute, denok ikusteko moduan, Erresuma Batuko Gobernuaren aldetik ere pausoak ematen ari direla erakusteko.

Kate luzea

Keinu eta erabakien etengabeko erakustaldia da Irlandako prozesua, bai aurrera egin duenean, bai atzera egin duenean. Kate bateko begiak balira bezala kateatzen dira bata bestearen atzetik, joan den astea adibide: Adamsen *eskaera* IRari, Desarme Batzordearen adierazpena, IRaren agiria, denon balorazio ona eta rotaflexa egoitza militarretan. Tentu handiarekin egindako negoziatioek emaitza onak izaten dituzte prozesu horretan. Gehienetan.

IPAR IRLANDA

Keinu eta erabakien etengabeko erakustaldia ikusi dugu aste honetan

ERREFERENDUMA

Ipar Irlandan Stormonteko edukien gainean egin zuten, ez IRaren gainean

Bide luzea egin dute inplikatu guztiek aste hau bitartean Ipar Irlandako arazoa konpontzeko, eta bide luzea geratzen zaie oraindik azken helmugara iritsi bitartean, baina, krisiak krisi, aurrera doa prozesua. Oinarri sendoak ditu eta horiek eusten diote kinka garaletan.

Zentzuzko ahaleginak

Eta IRari buruzko erreferendumik egin gabe egin dute bidea, jakina baita horrelako erreferendumak direla prozesua ez hasteko biderik seguruenak. Ipar Irlandan duela gutxi arte botoen %10 inguru jasotzen zuen Sinn Feinek (su-etenaz geroztik gora egin du nabarmen, eta azken hauteskundeetan SDLPren aurretik jarri da lehen aldiz).

Ipar Irlandan herriarren gehiengoa IRaren jardueraren aurkakoa izan da beti, baina inori ez zaio bururatu gatazka hura IRaren zilegitasunaren gaineko erreferendum batekin konpontzen saiatzea. Zer edo zergatik izango da.

Ipar Irlandan erreferenduma Stormonteko akordioaren edukien gainean egin zuten, ez IRaren gainean. Gurean, ETaren gaineko erreferenduma izan dugu hizpide. Erreferendumak egin hasita proposa zitekeen bat, esate baterako, Guardia Zibilaren presentziaren gainean.

Ondorioak denontzat

Ipar Irlandako prozesuaren konponbidean aurrera egiteak ondorioak izango ditu Euskal Herrikoan. Denontzat. Batzuentzat, Espainia, Frantzia eta alderdi espainiar eta frantziarren-tzat, Europar arazo nazional nabarmenduak konponbidean jarri gabe geratzen diren herri bakarretakoak direlako. Besteentzat, ETarentzat eta ezker abertzalearentzat, erreferentzia ingurunerik gabe geratzeko arriskua daukatelako; horrelako mugimenduentzat *hotz erreferentziala* egin bailezake. Baita EAJ eta EArentzat ere, gatazkaren konponbidean daukaten arduragatik.

Kaldereroak falta omen dira Euskal Herrian, Lanbide Heziketatik gutxi iriten direlako. Ez dira, hala ere, boluntarioak faltako Itxaurrondo rotaflexarekin desegitera joateko.

martintxo